

Euskaraldia: Garapen informatikoen LEHIAKETA

Oinarriak

Sarrera

Informatika Fakultatean *Euskaraldia* informatikara gerturatu nahi dugu, eta horretarako *Euskaraldiarekin* loturiko garapen informatikoak saritu nahi ditugu.

Zer da *Euskaraldia*?

Euskal Herri osoko instituzioak eta euskalgintzako eragileak batu dira, Euskaltzaleen Topagunea eta Eusko Jaurlaritza bultzatzaile nagusiak izanik, eta *Euskaraldia* antolatu dute (<https://euskaraldia.eus/>). 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean, euskal hiztunok euskararen erabilera areagotzeko asmoarekin, ahalik eta Ahobizi eta Belarriprest gehien aktibatzea da egiteko nagusia ([Bideoa](#)). UPV/EHU ekimenaren sustatzailea da ([Euskaraldia Euskal Herriko Unibertsitatean](#), [Euskaraldia Unibertsitatean](#), [Unibertsitatea Euskaraldian](#)) eta horrek UPV/EHUko kide guztiok konprometitzen gaitu.

Zer lan aurkez daiteke?

Euskaraldiarekin loturiko edozein garapen informatiko aurkez daiteke: aplikazio informatikoak, web-aplikazioak, mugikorrentzako app-ak, bideo-jokoak, bideo-muntaiak, animazioak...

Aurkeztutako lanean argi ikusi behar da *Euskaraldiarekiko* lotura: *Euskaraldiak* berak dituen helburu berberak bilatzen dituelako, horiek lortzen laguntzen duelako, horretan tresna osagarria izan daitekeelako, pertsonaia edo rol berberak (Ahobizi eta Belarriprest) nolabait erabiltzen dituelako...

Aurkeztutako lanak euskaraz gutxienez erabili ahal izateko modukoak izango dira.

Lanak jatorrizkoak izan behar dira. Aurkeztutako lanak bere osotasunean, edo lanaren zati handi bat (edo lanaren osagai gehienak), behintzat, ezin dira beste lan baten parte izan.

Nork har dezake parte?

Lan indibidualak eta talde-lanak onartuko dira, baina bigarren aukera hori positiboki baloratuko da, hau da, lana taldean egin izatea. Parte-hartzaile guztiek **UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko ikasleak** izan behar dute eta taldearen bi herenek gutxienez **Donostiako Informatika Fakultatekoak**.

Sariak

Lehiaketak ondoko 2 sariak ditu:

1. Saria: 450€ (Amazon bonua)
2. Saria: 250€ (Amazon bonua)

Epaimahaiak proposa dezake sari horietakoren bat eman gabe uztea.

Balorazio-irizpideak

Epaimahaiko kideek baloratuko dituzte lanak, honako irizpide hauek kontuan hartuta:

- *Euskaraldiarekin* duen lotura, horren helburuekin duen lotura
- Zuzentasuna, erabilgarritasuna, funtzionalitatea...
- Diseinua
- Dokumentazioa
- Berrikuntza, originaltasuna...
- Taldean egindako lana izatea
- Hizkuntzen trataera, bereziki euskararena, zuzentasunaren edota aberastasunaren aldetik
- Egindako lanaren bolumena eta zailtasuna
- Software librea erabiltzea, garapenaren arlo guztietan, edota *Creative Commons* lizentziapean egindako lana uztea.

Epaimahaiak lan baten egileak elkarrizketa batera deitu ahal izango ditu lana behar bezala ebaluatu ahal izateko, exekutatzeko edo lana aztertzeako arazoak ekiditeko, lanaren egiletza egiaztatzeako...

Epaimahaia

Epaimahaia fakultateko Euskara Batzordeko kideek osatuko dute.

<https://www.ehu.eus/eu/web/informatika-fakultatea/batzordeak>

Zer aurkeztu, non eta noiz?

Egindako garapen informatikoa aurkeztu ahal izateko bi aukera egongo dira:

- Graduko ikaslea bazara: eGela plataformako Informatika Fakultateko Graduko Gela Birtualeko "EUSKARALDIA: Garapen informatikoen LEHIAKETA" atalera ([Lanen entrega](#)) igo beharko da lana.
- Graduondoko ikaslea bazara: Lehenengo eGelaPI plataformako "Euskaraldia garapen informatikoen LEHIAKETA" ikastaroan (<https://egelapi.ehu.eus/>) izena eman beharko duzu. Horretarako dif.akademia-idazkaria@ehu.eus posta-helbidera bidali beharko duzu mezu bat zure LDAP kontua adieraziz. Matrikula burutu dela konfirmazioa jasotzen duzunean, bertara sartu eta lana [Lanen entrega](#) baliabidean igo ahal izango duzu.

Garapenarekin batera, lana aurkezten duen eta teknikoki nola garatu den laburki azalduko duen dokumentazioa (PDF formatuan) aurkeztu beharko da. Bertan egileen identifikazioa azaldu beharko da, Gipuzkoako campuseko zein ikastegitako ikasle diren eta harremanetarako pertsonaren posta elektronikoko helbidea eta telefonoa adieraziz.

Dokumentazioarekin batera egile bakoitzaren Unibertsitateko txartelaren fotokopia eskaneatua gehitu behar da, eta, existitzen den kasutan behintzat, entregatutako garapenaren iturburu-kodearen kopia bat ere bai.

Aurkezteko epea

2018ko urriaren 29tik azaroaren 15era arte.

Lehiaketaren ebazpena

Euskararen Nazioarteko Egunaren inguruan aurkeztutako lanen erakusketa (edo aurkezpena) egingo da, eta horren amaieran lehiaketaren sari-banaketari ekingo zaio.

Oharrak

Lehiaketa honetan parte hartzeak zera esan nahi du, parte-hartzaileak ziurtatzen duela bere lanaren egilea dela eta aldi berean antolakuntzak baimena duela hautatutako lanak erabiltzeko, beti ere egileen izenak adierazita, lehiaketa bera ezagutaraztearren edo *Euskaraldia* ekimenaren helburu berberak unibertsitatean bertan lortzearren.

Parte-hartzaileek berek bermatu beharko dute aurkeztutako lanetan ez dela urratzen beste inoren irudi-, jabego- edo egile-eskubiderik.

Lehiaketa honetan parte hartzeak aipatutako oinarri guztiak onartzen direla ondorioztatzen du.

Informatika Fakultateko Euskara Batzordea